

Altza

Grabatugintzaren bideetatik

Roteta Goikoa kaleko 19.ean Txokolarte izeneko ekimena abiatu du Estibalitz Alvarez Garcia gazteak. Hogeitabost urteko altzatar honek grabatugintza bultzatu nahi du. Berarekin hitz egin dugu Txokolarteri buruz.

Larraitz Garmendia (finoa.: 943-391267)

Zer da Txokolarte?

Izen ponposoa duen ekimen hau grabatu tailerra da. Bertan, grabatuak egiteko hainbat teknika irakasten da. Horrez gain, kobreakin egindako kalkografia eta baita xilografia ere jorratzen dira.

Nondik atera duzu izena?

Egia esan, artearekin zerikusia zuen izen baten bila ibili naiz denbora luzez. Azkenik, ez artearekin bakarrik, sukaldaritzarekin ere zerikusia duen hitz jokoa otu zait. Izena banatuz gero, artearen txokoa datorkigu gogora batetik, eta hain gogoko eta gustuko dugun txokolotea, bestetik.

Zer dela eta tailerra sortzeko ideia?

Egia esan, nahiko gauza bitxia gertatu zitzaidan. Debako Arteskolan grabatu ikasketak egiten ari nintzela, eskolako izkin batean bazter-tuta zegoen torkuloa ikasle bati emango ziotela esan zidaten. Torkuloa 500 kiloko tresna da, grabatuak egiteko erabiltzen dena. Azkenik, niri egokitu zitzaidan torkuloa eta probetxua atera behar niola pentsatu nuen. Horregatik antolatu nuen grabatu tailerra. Guk erabiltzen dugun torkuloak, gainera, historia luzea du, Oteiza, Txillida, Ibarrola eta Barojak erabili baitute, besteak beste.

Antza denez, inguru honetan ez dago torkulo askorik.



Estibalitzek klaseak emateaz gain, grabatuak egiteko materialeak eskaini nahi die artistei.

Bai, Donostian Txokolartek du torkulo bakarra eta tresna hau ezinbestekoa da grabatuak egiteko. Hori dela eta, erabilpen zabal eman nahi nioke torkuloari. Hau da, gure ekimena tailerra den arren, ez nuke soilik klaseak ematen ibili nahi. Artistek haien lanak egiteko beharrezkoa duten materiala ere eskaini nahi nuke.

Altzatarrek ba al dakite tresna hori zertarako erabiltzen den?

Torkuloa handia denez,

“Grabatu ikastaroa urtarilean hasteko asmoa dut”

batzuetan auzotarrak harrituta hurbiltzen dira tramunkulu hori zer ote den galdezka. Azalpena ematen diedanean, denak pozik gelditzen dira.

Noiz hasiko da tailerra?

Grabatu ikastaroa urtarilean hasteko asmoa dut.

Zer moduz joan zen inaugurazioa?

Jende gutxi gerturatuko zela pentsatzen nuen hasiera batean, baina ehun bat lagun elkartu ginen eta primeran pasa genuen. Hona hurbildutako artistekin hizketan aritu nintzen eta Donostian estanzio tailerra antolatzea ideia ona izan daitekeela ondorioztatu nuen.